



AURREKONTU ZUZENDARITZAREN TXOSTENA, KULTURA 2025 PLAN ESTRATEGIKOARI BURUZKOA

Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak xedatzen du, Aurrekontu Zuzendaritzaren egitekoen artean, eduki ekonomiko esanguratsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta erabakiei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-eragina ebaluatzeko eta dagozkion doitze-neurriak proposatzeko, EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorri (testu bategin hori urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egindako Kultura 2025 Plan Estrategikoa jaso dugu, eta Aurrekontu Zuzendaritzak honako txosten hau egiten du. XII. Legegintzaldirako Jaurlaritzak daukan Plan Estrategikoen parte da Kultura 2025 Plan Estrategikoa.

Dokumentuan azaltzen den bezala, Plan estrategikoa 2022-2025 aldirako pentsatua da, Covid-19aren pandemiak agerian jarri dituen lehentasunei erantzun egokiak emateko, eta kulturagintzaren susperraldia da xede nagusia. Horretarako hiru dira plan honen ardatz nagusiak, hiru alor nagusitan antolatzen baitu kulturaren sistema: kulturaren sorkuntza, eskaintza eta transmisioa.

Kultura 2025 Plan Estrategikoak, goian aipatutako kulturgintzaren ardatzei erantzuteko, lau helburu nagusi identifikatzen ditu:

1. Talentua garatzeko aukerak ugaltzea.
2. Kultur eskaintza aberastu eta gizarteratzea.
3. Kultura ondarea eta komunitateen garapena uztartzea.
4. Jauzi digitala sustatu eta ahalbideratzea.

Lehen hiru helburuak zuzenean daude hiru ardatzei lotuak (kulturaren sorkuntza, eskaintza eta transmisioari, alegia), eta laugarrena zeharkakoa da, arlo guztietan eragiten baitu egungo eraldaketa digitalak. Plan Estrategikoaren lau helburu nagusiak 16 lerrotan gauzatzen dira.

Lau helburu nagusi identifikatzeaz gain, Kultura 2025 Plan Estrategikoaren baliabide ekonomikoen zehaztasunak EAEko aurrekontuen egitura funtzionala oinarritzat hartzen du eta beraien zuzkidurak jasotzen dituzten programak hauexek izan dira: 1228-Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR), 1229-COVID-19K eragindako krisiaren aurkako neurriak, 4513-Kulturaren Sustapena, 4514-Ondare Historiko Artistikoa eta 5414-Berrikuntzarako Funtsa.

Planaren lau helburuak, gehi "Orokorrak" izeneko helburu gehigarri bat, honako jardun-ildo hauetan egituratzen dira: Oinarritzako aurrekontua, Covid-19, Berpiztu Programa, Inbertsio bereziak, MRR Funtsak, Gobernabtzaren partekatua, Langile gastuak, eta Beste batzuk.



Halaber, adierazi behar da Planaren 2022ko ekitaldiko aurrekontu-informazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2022ko hasierako aurrekontuan eta Covid Programaren, MRR funtsen eta Berpiztu jarduketan aurrekontu-aldaketetan (igoerak) oinarrituta dagoela.

Kultura 2025 Plan Estrategikoaren kostu osoa 2022-2025 aldirako 282,0 milioi eurokoa izango da, horietatik 2022rako 80,3 milioi euro aurreikusten da eta 2023an 69,6 milioi euro; azkenik, 2024ko eta 2025eko zenbateko osoak 65,1 milioi euro eta 67,0 milioi euro izango dira, hurrenez hurren.

Plan Estrategikoa, helburuen eta urtekoen arabera, honela banakatzen da:

(euro)

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2022	2023	Geh. (%)	2024	Geh. (%)	2025	Geh. (%)	GUZTIRA
TALENTUA GARATZEA	24.681.151	20.454.287	-17,1	19.927.521	-2,6	20.525.347	3,0	85.588.306
Oinarriko aurrekontua	18.783.600	19.347.108	3,0	19.927.521	3,0	20.525.347	3,0	78.583.576
Covid-19	2.557.918	-	-100,0	-	-	-	-	2.557.918
Berpiztu	2.152.429	300.000	-86,1	-	-100,0	-	-	2.452.429
Inbertsio bereziak	-	-	-	-	-	-	-	-
MRR Funtsak	1.187.204	807.179	-32,0	-	-100,0	-	-	1.994.383
ESKAINNTZA ABERASTE ETA GIZARTERATZEA	29.420.001	29.548.994	0,4	29.723.590	0,6	30.615.297	3,0	119.307.882
Oinarriko aurrekontua	28.017.334	28.857.854	3,0	29.723.590	3,0	30.615.297	3,0	117.214.075
Covid-19	-	-	-	-	-	-	-	-
Berpiztu	-	-	-	-	-	-	-	-
Inbertsio bereziak	300.000	300.000	0,0	-	-100,0	-	-	600.000
MRR Funtsak	1.102.667	391.140	-64,5	-	-100,0	-	-	1.493.807
ONDAREA ETA KOMUNITATEA UZTARTZEA	17.304.803	10.653.917	-38,4	6.925.635	-35,0	7.133.404	3,0	42.017.759
Oinarriko aurrekontua	6.528.075	6.723.917	3,0	6.925.635	3,0	7.133.404	3,0	27.311.031
Covid-19	-	-	-	-	-	-	-	-
Berpiztu	7.450.000	1.750.000	-76,5	-	-100,0	-	-	9.200.000
Inbertsio bereziak	1.630.000	2.180.000	33,7	-	-100,0	-	-	3.810.000
MRR Funtsak	1.696.728	-	-100,0	-	-	-	-	1.696.728
JAUZI DIGITALA SUSTATZEA	2.505.483	2.365.523	-5,6	1.663.491	-29,7	1.713.396	3,0	8.247.893
Oinarriko aurrekontua	1.568.000	1.615.040	3,0	1.663.491	3,0	1.713.396	3,0	6.559.927
Covid-19	-	-	-	-	-	-	-	-
Berpiztu	-	-	-	-	-	-	-	-
Inbertsio bereziak	830.000	690.000	-16,9	-	-100,0	-	-	1.520.000
MRR Funtsak	107.483	60.483	-43,7	-	-100,0	-	-	167.966
OROKORRAK	6.424.312	6.617.041	3,0	6.815.552	3,0	7.020.019	3,0	26.876.924
Gobernantza partekatua	1.756.000	1.808.680	3,0	1.862.940	3,0	1.918.829	3,0	7.346.449
Langile gastuak	4.098.312	4.221.261	3,0	4.347.899	3,0	4.478.336	3,0	17.145.808
Beste batzuk	570.000	587.100	3,0	604.713	3,0	622.854	3,0	2.384.667
GUZTIRA	80.335.750	69.639.762	-13,3	65.055.789	-6,6	67.007.463	3,0	282.038.764

2023 urtean % 13,3ko jaitsiera gertatuko da eta % 6,6koa 2024an, urte horietan COVID, Berpiztu, Inbertsio Bereziak eta MRR Funtsak jarduerak behera egingo dutelako edo desagertuko direlako. 2025ean, igoera % 3koa izango da.

Oro har, Planaren aurrekontu-partida guztiak (Oinarrizko aurrekontuaren partidak) % 3 handituko dira urtero aurreko urtearen aldean, Covid-19 Programaren, Berpizturen, Inbertsio Berezien eta MRR funtsen jarduketei dagozkienak izan ezik, horiek berariazko bilakaera baitute.

Gorago, Berpiztu Programa eta Inbertsio bereziak aipatu dira. Aztertutako Planaren dokumentuaren arabera, Kultura Plan Estrategikoak, hain zuzen ere, erreferentziatzko bi programa hauek ere hartu ditu kontuan:

- 2020ko Berpiztu Programa (2020ko azaroaren 3an Gobernu Kontseiluak onartutakoa).
- 2021eko Inbertsio Programa Berezia (2021eko irailaren 28an Gobernu Kontseiluak onartutakoa). Programa horri dagokionez, adierazi behar da programa horrek ez duela barne hartzen Kultura 2025 Plan Estrategikoari lotutako partidarik. Inbertsio Programa Bereziak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokionez, "Goi mailako Basque Team zentroa birgaitzera" bideratutako zuzkidurak jasotzen ditu 4512 Kirolak Programan, 1.610.000 eurokoak 2022an eta 2023an, hurrenez hurren.

Planaren memoria ekonomikoa eta aurrekontu-zuzkidurak aztertu ondoren, adierazten da, oro har, 2022ko Aurrekontuen Legean eskuragarri dauden kredituak egokitu egiten direla Planak ekitaldi horretarako dituen finantzaketa-beharretara.

Atal hauek aztertuko dira:

COVID-19

2022rako zenbatekoa 2.557.918 eurokoa da, arte biziak dinamizatzeko baliabideekin (557.918 euro) eta zuzeneko musikako eta zinema-aretoen erakusleentzat (2.000.000 euro). Covid-19 jarduera horiek ez dute jarraituko 2023. ekitaldian eta hurrengoetan, Planak ezartzen duenaren arabera.

Berpiztu

Guztira 9.602.429 euro 2022an eta 2.050.000 euro 2023an izango dira. Berpiztu jarduera horiek ez dute jarraituko 2024ko eta 2025eko ekitaldietan.

Planaren bi ardatzei (Talentua garatzea eta Ondarea eta Komunitatea uztartzea) dagozkien Berpiztu programari lotutako memoria ekonomikoa eta aurrekontu-zuzkidurak aztertu ondoren, adierazten da, oro har, 2022ko 11. Sekzioan (Kultura eta Hizkuntza Politika) dauden kredituak, Kultura 2025 Plan Estrategikoaren finantzaketa-beharretara egokitzen direla.

Inbertsio bereziak

Guztira 2.760.000 euro 2022an eta 3.170.000 euro 2023an izango dira. 2024. eta 2025. ekitaldietarako ez da aurrekontu-zuzkidurarik zehazten.

2023ko ekitaldiko jarduketan kasuan, Sailaren 2023ko urteko aurrekontuan jaso beharko dira kreditu-beharrak, eta ekitaldi horietan esleitutako baliabideekin hartuko dira beren gain. Gauza bera esan daiteke 2024ko eta 2025eko ekitaldietan beharrezkoak izan daitezkeen jarduketei eta kreditu-zuzkidurei buruz.

MRR Funtsak

Guztira 4.094.082 euro 2022an eta 1.258.802 euro 2023an izango dira. Horietatik 1.318.623 euro 2022an eta 418.623 euro 2023an foru-aldundiek gauzatuko dituzte.

Hain zuzen ere, 2022ko ekitaldian, Estatutik MRR funtsak jaso dira EAEn, Kultura 2025 Plan Estrategikoko jarduketekin lotuta, eta Kultura eta Hizkuntza Politika 11 sekzioko eta 95 Baliabide eta Konpromiso Institutuzionalak 95 sekzioko 1228-MRR Programan gaitu dira.

Beste aldetik, 2022ko ekitaldian egikaritu ezin diren MRR funtsak 2023ko ekitaldiko EAEko Aurrekontuen Lege Proiektuan aurrekontuan sartu ahal izango dira.

2023an jasoko diren MRR funts gehigarriei dagokienez, jasotzen diren unean funts horiek gaituko dira, egoki diren ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sortuko dituzte, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian eta 1228-MRR Programan, betiere ekitaldi horretako Aurrekontuen Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Azkenik, "**Orokorrak**" atalean, "Gobernantza partekatua", "Langile gastuak" eta "Beste batzuk" arloei dagozkien kredituekin, 2022 Aurrekontuko zuzkidurak jasotzen dira, eta 2023, 2024 eta 2025 urteetarako % 3ko gehikuntzekin. Horri dagokionez, 2025eko Kultura Planak urteko aurrekontuen legeek xedatzen dutena bete beharko du. Halaber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Plana gauzatzean, sortzen diren behar gehigarriei erantzun beharko die dagozkion aurrekontu-aldaketen bidez, bere aurrekontuko kredituak erabiliz.

ONDORIOAK

Orokorrean, 2022rako EAEko Aurrekontuetan jasotzen dira ekitaldi horretarako Kultura 2025 Plan Estrategikoak zehazten dituen aurrekontu-zuzkidurak.

2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietako jarduketei dagokienez, haien kreditu-beharrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren urteko aurrekontuetan jaso beharko dira ekitaldi horietan, eta horiei esleitutako baliabideekin hartuko dira beren gain.

Gainera, edozein ekitalditan Plan Estrategikoa gauzatzearen ondorioz sor litekeen edozein premia gehigarri finantzatzeko, bere garaian Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrekontuan zeuden soberako zuzkiduren berresleipenak egin beharko dira.

Gorago adierazi den bezala, 2022ko ekitaldian egikaritu ezin diren MRR funtsak 2023ko ekitaldiko EAEko Aurrekontuen Lege Proiektuan aurrekontuan sartu ahal izango dira.

2023an jasoko diren MRR funts gehigarriari dagokienez, funts horiek gaitzen direnean, egoki diren ordainketa-kredituak eta, hala badagokio, konpromiso-kredituak sortuko dituzte, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian eta 1228-MRR Programan, betiere ekitaldi horretako Aurrekontuen Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Nolanahi ere, beharrezkoa da ohartaraztea Kultura 2025 Plan Estrategikoaren zenbatekoak ez direla izango, inola ere, aurrekontu-konpromisoak, zeren eta aipatutako konpromisoak urteko Aurrekontu Orokorretan agertzen direnak bakarrik baitira; beraz, planak aurrera eramateko, urteko zuzkidura ekonomikoak egokitu beharko zaizkio EAEko Aurrekontu Orokorren legeek xedatzen dutenari.

Josu I. Garay Ibáñez de Elejalde
AURREKONTU ZUZENDARIA